



KALKULATU, IKERTU, HAUSNARTU... AZAROA

- Proiektatu infografia. Infografia horretan oinarrituz, eta ikasleen mailaren arabera, hainbat kalkulu egin ditzakezue, gero gogoeta egiteko:
 - 1990etik hona, jaitsi al da produkturen baten ekoizpena?
 - Kalkulatu ehuneko zenbat igo den elikagai bakoitza 1990etik 2014ra bitartean.
 - Bilatu eta kalkulatu munduko biztanleen kopuruan 1990etik 2014ra izandako gorakadaren ehunekoa.
 - Gutxi gorabehera 7.300 milioi pertsona bizi dira munduan gaur egun¹. Pertsona bakoitzari urtean zenbat kilo egokituko litzaizkioke produktu horietako bakoitzetik?
 - Zuen ustez, hori nahikoa al da elikadura egokia izateko?
 - 4. jarduerako datuen arabera, ezberdintasun asko al daude Espainiako batez besteko kopuruen eta kalkulatu dugun datuaren artean?
 - Aztertu nolakoa izango litzatekeen gure elikadura batez besteko kopuru horien arabera. Zuen ustez, desegokia izango al litzateke?



¹ PNUD 2016. 2015ari buruzko datuak, eskuragarri dauden azkenak.